

## **AECC MINBIZIAREN AURKAKO ESPAINIAR** **ELKARTEAREN PROBINTZIA EGOITZA:** ***Onkologiako doktorego aurreko deialdia 2025***

### ***Helburua:***

Laguntza hauen helburua prestatzen ari diren ikertzaileak kontratatzea da, ZTBLren 21. artikulua bidez, 4 urteko iraupenarekin. 3 urteko hasierako kontratua formalizatuko da, urtebete luzatzeko aukerarekin.

### ***Laguntzen kofinantziak:***

Kontratuaren lehen 3 urteetako laguntza 26.950 €-koa izango da, eta 29.810 €-koa laugarren urtean. Laguntza horrek ez du Unibertsitatearen kontratazio-kostua estaltzen; beraz, beharrezkoa da eskaera bermatzen duen ikerketa-taldeak konpromisoa hartzea laguntzak estaltzen ez duen kontratuaren zatia finantzatzeko. Horretarako, ikerketa-webgunean argitaratutako inprimakia bidali beharko digute, behar bezala beteta eta sinatuta.

### ***Eskaerak aurkezteko epea:***

AECC Fundazioan eskabiadeak aurketeko epea **2024eko urriaren 24** amaituko da, **15:00etan**. Ikerketa-zentroan onartua izan dela egiaztatzen duen gutunean legezko ordezkariaren sinadura lortzeko baterako finantzaketa-inprimakia aurkezteko epea **2024ko urriaren 17an** amaituko da.

### ***UPV/EHUn bete beharreko prozedura:***

UPV/EHUK kontratuak egingo ditu UPV/EHUKo doktorego programetako tesi zuzendariak dituzten onuradunekin, ez beste inorekin. Programa bakoitzari atxikitako irakasleen zerrenda esteka honetan ikus daiteke: <https://www.ehu.eus/es/web/doktoregoa>

Ildo beretik, UPV/EHUK **kontratuak egingo ditu unibertsitateko sail edo institutu bati atxikiko diren pertsonekin, ez beste inorekin.**

UPV/EHUri atxikitu nahi duten hautagaiek ikerkuntzaren arloko errektoreordearen sinadura eskatu beharko dute, [pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dgi@ehu.eus) helbidera idatzita **2024eko urriaren 17 arte**. Horretarako, "ikerketa-zentroan onartua izan dela egiaztatzen duen gutuna" (Fundazioaren txantiloia) bidali beharko du, behar bezala beteta eta eskabidea bermatzen duen proiektu-zuzendariaren sinadura elektronikorekin.

### ***Fundaziorekin harremanetan jartzeko:***

Telefonoa: 900 100 036

Deialdiari buruzko kezkak: [fundacion.cientifica@contraelcancer.es](mailto:fundacion.cientifica@contraelcancer.es)

GMS laguntzak kudeatzeko plataformari buruzko zalantzak: [soporteGMS@contraelcancer.es](mailto:soporteGMS@contraelcancer.es)

<https://www.contraelcancer.es/es/area-investigador/ayudas/talento/ayudas-predoctorales-aecc-2025>

### ***UPV/EHUn kontaktua:***

Helbide elektronikoa: [pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dgi@ehu.eus)